

PVC-identitatea = CCC+pluraltasuna

Artikuluaren izenburutik beretik igarriko zenioten jolaserako gogoarekin natorrela; hego haizearen kontuak. Ezagutzen nautenek badakite puzzle zale amorratua naizela. Gaur, puzzlegintzan jarri nahi zaituztet zuek ere

MIREN AZKARATE. Euskal Filologian Doktore, irakasle eta Euskaltzain osoa 1992tik.

Piezak emango dizkizuet lehenengo. Ondoren, pieza batzuk ondokoekin elkartuaz, puzzle horretako atal edo irudi desberdinak osatuko ditugu. Eta, azkenik, atal guztiak batzea besterik ez zaigu geratuko puzzlea amaitzeko. Lan hau, ordea, zeuei utziko dizuet. Baina, puzzleari ekin aurretik, kontu pare bat jakitea komeni zaizue. Batetik, pieza berak mahai gainean izanda, bi puzzle diferente osa daitezkeela: PVC* puzzlea eta CCC** puzzlea, zein pieza aukeratzen den, zein baztertzen den, nola elkartzen diren piezak... Bestetik, aitortuko dizuet nik lehen ere jardun dudala puzzle horietako bat egiten; zuen aurretik noa horretan. Horregatik batek baino gehiagok pentsa dezake tranpa egiten ari naizela, hobe nukeela puzzlea bakean lagatzea. Baina... hego haizea!

Multzoka erakutsiko dizkizuet piezak. Lehen multzoan, erakundeak dituzue: Jaurilaritza, Foru Diputazioak, Udalak, erakunde horietako arduradun politiko eta teknikariak.

Bigarren multzoan, kultura-eragileak: museo, liburutegi eta artxibategietako arduradun eta langileak; ondare arkeologikoa, ondare arkitektonikoa, ondare etnografikoa, edo ondare industrialak zaindu eta kudeatzen dutenak; antzerkia, musika, dantza, literatura, edo arte plastikoak lanbide eta zaletasun dituztenak; eskulangintzan ari direnak; edizioan, fonografian, ikus-entzunezkoetan lanean dihardutenak (kultura-industrietan); kultura digitalaren eta multimedien ardura dutenak...

Hirugarren multzoan, jendea, pentsamolde eta identitate-sentimendu desberdineko herritarrak, nazio bat (Euskal Herria), lurralde bat (zazpi lurralde txikiagoz osatua, edo zortiz Diaspora kontuan hartuta), kultura bat (aldakorra, mestizoa, mundura irekia, baina aldi berean propioa eta indartsua), hizkuntzak (guztiak geureak, baina horietan bat propioa, bereziki zaindu beharrekoa). Eta herritar horien ingurunea: mundu globalizatua, sareak eta digitalizazioa, informazio eta komunikazioaren teknologia...

Pieza hauekin hasiko gara puzzlegintzan. Eta bi puzzle diferente osa daitezkeela esan dizuedanez, lehenari ekingo diogu, PVC puzzlea osatzeari. Horretarako, batetik, lehen multzoko pieza guztiak hartuko ditugu eta elkartu; bigarren multzoko pieza guztiak askoz gehiago izango lirateke, baina horien ordezkari, talde bakoitzeko batzuk hartuko ditugu (300 piezatik gora), 18 talde osatzeraino. Eta pieza hauek mahai gainean ditugula, PVC puzzleko zatiak antolatzen hasiko gara. Horretarako ondo begiratu beharko diogu puzzle osoaren irudiari: identitate bateko baino gehiagoko pertsonen osatzen duten nazio horrentzat kultura-sistema, XXI. mendearen hasieran, eta mundu globalizatua. Nazioa eta kultura-sistema, hor dugu irudia. Eta hori argi izanez gero, ez da hain zaila puzzleak zein zati izango dituen asmatzea: Euskadiko museoen sistema; Euskadiko liburutegien sistema, eta sistemaren buru Euskadiko Liburutegia, euskaraz

argitaratzen den guztia bilduko duena, nazio horren kulturari buruz argitaratzen den guztia bilduko duena, kultura eta hizkuntza partekatzen duten lurralde guztiekin harremana izango duena, euskal bibliografia osatuko duena, ondare digitala kudeatuko duena; Euskadiko artxibategi edo agiritegien sistema, eta sistemaren buru Euskadiko Artxibategia. Eta horretarako zein pieza erabiliko dugu? Lehen multzoko guztiak, erakunde guztien arteko elkarlana sustatzeko; eta bigarren multzotik, ondarearen arlo hauei dagozkienak. Guztien artean osatzeko museo, liburutegi eta artxibategien sistemak.

Hurrengo zatiek, Euskal Herriko antzerkiaren, dantzaren, musikaren, literaturaren, arte plastikoen, ikus-entzunezkoen (eta zinegin-tzaren), edizioaren, fonografiaren... arloak bilduko dituzte. Eta nola osatuko ditugu zati hauek? Berriro ere lehen multzoko piezak erabiliko ditugu (puzzle honetan piezak behin eta berriz erabil daitezkeelako) eta bigarren multzotik, aipatu ditugun arlo horietakoak direnak. Ez, gainera, nahitaez mahai gainean ditugun piezak; birtualak ere izan daitezke, sarearen bidez zati bakoitza osatzen lagunduko digutenak. Lehen multzoko eta bigarren multzoko piezek, elkarlanean, esango digute atalka, sektoreka, nola jardun behar dugun, lehentasunak non dauden.

Informazio eta komunikazioaren teknologien piezak eta euskararenak, berriz, beti erabiliko ditugu, zati guztietan.

PVC puzzleak bost ardatz izango ditu, nazio honen kulturaren arloak egituratzeko indar nahikoa izan behar luketenak: eraginkortasuna eta gobernantza (sustapen politika berriak eta erakundeen arteko koordinazioa Kulturaren Euskal Sistema egituratzeko); jakintza (euskal kultura zertan den jakitea, Kulturaren Euskal Behatokia azterketa eta ikerketak egiteko erreferente izanik); eskuragarritasuna (besteak beste kulturara herritar guztiek sarbidea izan dezaten museo, liburutegi eta artxibategiak erarik egokienean prestatzea; Euskadiko Liburutegia eta Artxibategia sortzea); kultura-bizitasuna (ikusizko arteak, arte eszenikoak, musikalak, kultura-industriak; I+G+B sustatzea...); nortasuna eta aniztasuna (euskara sustatzea kultur jardueran, kalitatezko edukien sorrera bultzatzea, Euskal Herrian kultura komuna bultzatzea, edo euskal kultura nazioartera zabaltzea, besteak beste).

Hel diezaiogun orain CCC puzzleari. Eta puzzlea nola egin jakiteko irudi osoari begiratzen badiogu, guztiz bestelako irudia ikusiko dugu: herritarrekin kulturen aldeko kontratua. Kultura plural, ireki eta aske baten aldeko kontratua, puzzle hau diseinatu dutenek diotenez. Hirugarren multzoan jarri ditugun piezei ez omen zaie lekuri egiten PVC puzzlean. Hemen bai, protagonismoa euren da. Egia esan, puzzlea osatu gabe dago, diseinatu baino ez dute egin. Baina ikusten da diseinu honetan ez dagoela naziorik; herritarrak bakarrik daude. Ez dago euskal kulturarik, ez behintzat izenburuan; kulturak (pluralean) daude. Gero esaten da 'kontratua proposamen parte-hartzaile eta irekia da euskal kultura iraunkor, bizi, askotariko eta eskuragarria sortzeko ezagutzaren eta globalizazioaren aroan, herritarrek herritar guztientzat eginda'. Baina herritarrek, antza, ez dute Euskadiko Liburutegiaren edo Euskadiko Artxibategiaren beharrik; ez dago euskarazko ekoizpena sustatu beharrik; ez dago kultura-sistema bat eratu beharrik. Diseinu berria biltzen duten hamazazpi orrialdeetan ez dago euskararen aipamenik.

Eta herritarrak baldin badira kultura-ekin-tzen helburu eta ardatz nagusia, beste bi multzoetako pieza horiekin zer gertatzen da? Aurreko puzzlearen diseinuan eta 'fabrikazioan' hasiera-hasieratik parte hartu zuten Foru Diputazioak eta gure bigarren multzoko piezak orain arte kanpoan geratu dira. Harrigarria da

irakurtzea Kontseiluan eta lan-talde sektorialetan eskaera argia dagoela gai jakin batzuetan zeharkakoagoa den ikuspegi batetik lan egiteko, lan-talde sektorialak ez baitira bildu azken urte eta erdian. Harrigarriago oraindik lan-talde sektorialek arintasun handiagoa behar dutela jakitea. Eta harridura 'goren gradura' heltzen da herritarrekin egingo den kulturen aldeko kontratuak izango dituen zazpi jarduera-ildo estrategikoak zein diren ikustean: kultura parte-hartzailea, kultura-herritartasunerantz; hurbiltasunaren kultura; sorkuntza bultzatzea; kultura-industria eta enplegua; berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzea; baliabideak gehitzea eta finantziazio-iturri berriak aurkitzea; eta kanpo-proiektzioa. Zazpi ildo estrategiko horietatik zein ez zegoen PVC puzzlean? Proposamenak jasotzen dituen talde eta proiektu sektorialetatik zein ez zegoen lehen eta bigarren multzoko piezek, elkarlanean, diseinatu eta adostuak zituzten sektorekako jarduera-planetan? Eta hori horrela bada, nola ulertu behar da diseinu berria?

Badakit zilegi dela, bidezko dela diseinu bat zein bestea. Normala dela bestela pentsatzen dutenak datozenean aurrekoen diseinuak aldatzea. Beste modu bateko puzzleak egitea. Baina zintzo jokatuaz, zer egin nahi den argi esanaz. Niri, Hego-haizeak belarri ertzero esaten dit PVC puzzleari identitatearekiko obsesioa egozten diotenek, herritarrak eta kulturak aipatuaz, pluraltasuna eta irekitasuna aipatuaz, beste identitate jakin bat txertatu nahi dutela CCC puzzlean.

Egia esan, ez nuke horrelako galderarik egin behar; ez nuke horrelako formularik planteatu behar. Zeuei utzi beharko nizueke PVC eta CCC puzzleen arteko aukera egiten.

Baina utzidazue PVC polimeroaren definizioak zer dioten oroitarazten, 'disolbatzaile gehienetan disolbaezina da, ura eta agente kimikoak (ozonoa, azidoak, etab.) ondo jasaten ditu'. Horretarako, ordea, PVC puzzlearen alde egin behar da.

(*PVC, Plan Vasco de la Cultura. **CCC, Contrato Ciudadano por las Culturas).